









DIAGNOSTIKOAREN GAKOAK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERA-EREMUAK






1.1. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
HONDAKINAK	Hiri-hondakinen sorrera		Biztanleko eta eguneko sortutako hiri-hondakinak murrizteko joera antzeman da, baina beharrezkoa da hondakinen sorrera murrizten jarraitzea, horrela Bizkaiko Hiri Hondakinen Prebentzio Planak ezarritako helburuak betetzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Sortutako hiri-hondakinak murrizteko neurri berriak sartzea. Hondakinen sorreraren prebentzioa sustatzea.
	Bilketa selektiboa		Berreskuratutako hondakin-portzentajearen goranzko joera, azken urteetan atzeranzko joera txikiarekin. Joerari buelta ematea eta hondakinen bereizketa indartzea beharrezkoa da.	<ul style="list-style-type: none"> Joerari buelta ematea eta selektiboki jasotako hondakinen portzentajea indartzea.
	Hiri-hondakinen kudeaketa eta tratamendua		<p>Arratian kudeatutako hondakinak erkidego-mailan kudeatzen dira, Arratiako Udalen Mankomunitatearen bidez.</p> <p>Positiboki baloratu da frakzio organikoaren bilketa selektiboaren ezarpena (prestatu gabeko landaretza-hondakinak).</p> <p>Etxeko konpostajea sustatuz hondakin organikoen kudeaketa egokia hedatzea planteatzen da.</p> <p>Egun masan jasotako hondakinak Igorreko hondakindegira sartzen dira.</p> <p>2013aren amaierarako, Hondakinak Transferitzeko Plana martxan jarriko da, eta, bertan, honako hondakinak gorde ahalko dira: gainerako frakzioa, prestatu gabeko landaretza-hondakinak (5. edukiontzia), udal-lorategiko hondakinak eta tamaina handikoak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Aurretiazko tratamendurik gabeko hondakinen 0 isurirantz aurrera egitea. Hiri-hondakinen material organikoaren kudeaketa integral eta tratamendu egokia ezartzea, 5. edukiontzia bidez eta etxeko konpostajearen bidez,
	Hiri-hondakinen ordenantzak eta zerga-sistema		Arratiako Mankomunitateko Hondakinen Ordenantzak ez du aurreikusten hiri-hondakinak murrizteko pizgarririk.	<ul style="list-style-type: none"> Hiri-hondakinen gaineko ordenantza berria egitea. Ordenantzan hiri-hondakinak murrizteko pizgarriak sartzea.
	Sentsibilizazioa		Arratiako Mankomunitatearen bidez, urtero sentsibilizazio-jarduera desberdinak antolatzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> Urtero hondakinen gaineko sentsibilizazio-kanpainak garatzea, eskualdeko sektore sozial eta ekonomiko desberdinei zuzenduta.
	Industria-hondakinak		Ez da mankomunitatearen eskumena, baina eremu honetan enpresak sentsibilizatzea komeni da.	
	Eraikuntzako hondakinak		Arratia mailan eraikuntzako hondakinak kudeatzeko guneak garatu eta gaitzeko beharrezkoa antzeman da.	
	Hiritarrek ohiturak aldatzeko duten prestutasun-maila		Arratiako biztanleria prestu dago hondakinak bereizteko eta edukiontzi selektiboetan gordetzeko. Berez, 1.500 familiatik gorak eman dute izena 5. edukiontzia zerbitzuan.	<ul style="list-style-type: none"> Biztanleriaren ohituretan jarrera positiboak fidelizatu eta indartzea, hondakinen sorrera eta bereizketa egokiaren gainean.





1.2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
ENERGIA	Egitura energetikoa		<p>Eskualdeko egitura energetikoak, EAeko beste udalerrri askotakoaren antzekoak, erregai fosilen erabilera handia eragiten du, negutegi-efektudun gas-isurietan ekarpen nabarmena izanik.</p> <p>Urteko udal-kontsumo elektrikoari dagokionez, urteetan zehar elektrizitatearen kontsumoa murriztu egin da, gas naturalaren kontsumo handiagoarekin lotuta.</p> <p>Udalerrri askok erabaki dute herri-argiterian teknologia energetikoki eraginkorragoak ezartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Eraginkortasun energetikoko eredu bat ezartzea, kanpoko mendekotasun-maila eta erregai fosilen nahiz lotutako negutegi-efektudun gas-isurien erabilera murrizteko. ♦ Kontsumo energetikoaren ezagutza-maila eta jarraipena udalerrriko sektore ekonomiko guztietara hedatzea. ♦ Ibilgailuaren erabilera partekatua eta garraio publikoa sustatzea.
	Energia berriztagarriak ekoiztea		<p>Energia berriztagarriaren ekoizpenik garrantzitsuena hidraulikoa da eta ez da antzeman beste era bateko energia-moten ezarpen garrantzitsurik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Iturri berriztagarrien energien ekoizpena sustatzea, batez ere biomasa, fotovolatikoa, minihidraulikoa eta minieolikoa.
	Energiaren kontsumoa eta kudeaketa, tokiko administrazioan		<p>Arratiako Udalen Mankomunitatea arduratzen da Herri Argiteria Mantendu eta Egokitzeko zerbitzuaz.</p> <p>Eraginkortasun Energetikoko Eskualde Bulegoa sortu da, ESETEK enpresaren aholkularitza duena, eta eskualdeko kontsumoen jarraipenari eta energiaren planifikazio eta kudeaketari buruzko aholkuak ematen ditu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Energiaren kontsumoan aurrezki handiagoa lortzea.
	Udal-ekipamenduen kontsumoa		<p>Udal-instalazioetako azken kontsumo energetikoaren egituran sartzen dira energia elektrikoak, gas naturala eta C-gasolia.</p> <p>Udal-ekipamenduen kontsumo energetikoa igo egin da eta herri-argiteriaren kontsumoa murriztu, herri-argiteria energetikoki eraginkorragoko teknologien alde egin duten udalerrrietan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Udal-ekipamenduen eta herri-argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko bidean aurrera egitea. ♦ Udal Plan Estrategikoa (UPE) eta Eskualdeko Plan Energetikoa egitea.
	Herri-argiteriaren kontsumoa		<p>Herri-argiteriaren kontsumoa Udalsarea 21en batez bestekoaren oso gainetik dago.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Herri-argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzea.
	Sentsibilizazioa		<p>Sentsibilizazio-jarduerak batez ere eskualde-mailan egiten dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Sektore desberdinak sentsibilizatzea, energiaren aurrezki eta arrazoizko erabilera sustatzeko, batez ere egoitza-sektoreari zuzenduta.
	Eraikuntza		<p>Areatzan Etxe Berdeen kanpaina gauzatu zen. Bertan, familiei aholkuak ematen zitzaizkien energia-kontsumoko ohiturak hobetzeari buruz, ordainagiriak ikertzen ziren eta aurrezki-proposamenak egiten ziren.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Etxe Berdeen esperientzia eskualde-mailan hedatzea interesgarria litzateke; egoitza-sektoreara hedatzeaz gain, merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta eraikin publikoetara zabaltzea.

1.3. ADMINISTRAZIOAREN EROSKETA PUBLIKOA ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA

	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
ADMINISTRAZIOAREN EROSKETA PUBLIKOA ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA	Erosketa eta kontratazio publiko berdea		Ez dago kontratazio eta erosketa publiko berderako prozedura eta konpromisorik.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Eskualde-mailako kontratazio- eta erosketa-plan publiko berde bat diseinatu, martxan jarri eta jarraitzea.
	Udal-administrazioaren ingurumen-kudeaketa		Udal-zerbitzu edo -bulego batek ere ez dauka kudeaketa-sistema ziurtaturik. Ez dago prozedura estandarizaturik ingurumen-gaiak kudeatzeko: baliabideen erabilera, hondakinen kudeaketa, eta abar.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Ingurumen-garrantzia handiena duten instalazio eta zerbitzuetan ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzea.
	Prestakuntza, sentsibilizazioa eta komunikazioa		Ez da sentsibilizazio/informazio jarduera zehatzik egin udaletako langileei zuzenduta, era programatuan eta aldizka. Ez da banatzen udal-kudeaketan aplikatzeko moduko ingurumeneko jardunbide onen argitalpen, gida edota eskulibururik.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Administrazioa behargin guztiei iraunkortasun-alarreko prestakuntza orokorra ematea.



2.1. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA


KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jardueraren eremuak
	Komunikazioa		Mankomunitateak sustatutako ekimen, jarduera, proiektu eta ekitaldiak ezagutzera emateko erabilitako komunikazio-kateak askotarikoak dira eta aski direla ulertzen da.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Informazioaren teknologia berriak erabiltzea biztanleriako sektore guztietara iristeko.
	Sentsibilizazioa		Urtean zehar eremu tematiko desberdinekin lotuta egiten diren sentsibilizazio-ekintzak anitzak dira: iraunkortasuna, genero-ikuspegia, eta abar.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Xede-ikusleak bereiztea, mezuak eta formatuak horien arabera egokituz.
	Partaidetza		Gaur egun ez dago hiritarren partaidetza-organorik edo foro aktiborik eskualde-mailan, Tokiko Agenda 21eko gaiak lantzeko. Hala ere, hainbat partaidetza-formula garatzen ari dira, besteak beste Arratiako Topagunea, hiritarren partaidetza sustatzeko modu ona izan daitekeena. Igorren eta Diman Eskola Agenda 21eko foroak egiten dira.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Partaidetza-espazio edo -formatu berriak sustatzea eta daudenak aldatzea. ♦ Eskola Agenda 21 sustatzea eta gainerako ikastetxeetara hedatzea. ♦ Eskola Agenda 21eko foro bat egitea Mankomunitatean. ♦ Arratiako ekonomia- eta gizarte-eragileek iraunkortasun-prozesuan parte hartzen dutela sustatzea.
	Elkarte-sarea		Gaur egun erregistratutako elkarteak askotarikoak dira eta eskualdeko kultura- eta kirol-jardueraren zati handi bat dinamizatzen dute. Ez dago loturarik elkarten artean eta are gutxiago udal desberdinen artean. Ekitaldi eta jardueretako informazio eta partaidetza oso tokikoa da. Gazteriak informazio gehiago eskatzen du eskualde mailan.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Jarduera, kirol eta abarreko Jardueren Atlas lantzea eskualde-mailan.

2.2. BARNE KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA

BARNE KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
	Barne-koordinazioa eta komunikazioa		Tokiko iraunkortasunarekin lotutako gaiak Informazio Batzordeetan lantzen dira. Ordezkarri politikoez gain, dagokion arloko teknikariak ere egongo dira.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Udal-organo bat finkatzea, iraunkortasun-prozesua planifikatzeko, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko. ♦ Iraunkortasunaren gaineko proiektuak sustatzea, sail arteko koordinazioa eta lankidetzak eskatzen dutenak, udaleko politiketan zeharkakotasun-maila altuagoa lortzeko.
	TA21eko kudeaketa-eredua ezartzea		Mankomunitatearen Agenda 21aren ezarpen-prozesua hasi da, Diagnostikoa eginez.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Prozesua garatzen jarraitzea eta Arratiako Udalen Mankomunitatearen Agenda 21aren Ekintza Plana gauzatzea.
	Baliabide teknikoak		Mankomunitateak iraunkortasuneko teknikari bat dauka, Mankomunitateko Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 kudeatu eta koordinatzeaz arduratzen dena. Gaur egun ONDOAN, S.Coop. enpresari azpikontratutako zerbitzua da eta urtero berritu daiteke.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Sail arteko lankidetzak sustatzea, Mankomunitatearen Agenda 21 elkarren artean garatzeko. ♦ Tokiko Ekintza Planak eguneratzea. ♦ Mankomunitatean Iraunkortasun Arlo etengabea jartzea.
	Lidergo politikoa		Mankomunitateko lehendakaritzak eta sektore desberdinetako arduradun guztiek iraunkortasun-prozesuaren garapenean era aktiboan parte hartzeko berariazko konpromisoa dute, Agenda 21en filosofia barneratzeko zailtasunak dauden arren.	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Mankomunitateko kargu politiko guztiak Arratiako Iraunkortasunerako prozesuan partaide bihurtzea.

3. GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA

	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA	ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA			
	Azaro sozialak		<p>Eskualdeko immigrazioaren fenomenoari erreparatuta, beharrezkoa da Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren Legea aldatzearen ondorioak aurreikustea, hirugarren sektoreko taldean eta etorkinen taldean sor daitezkeen eskariak bete ahal izateko. Edonola ere, ez da Mankomunitatearen ardura.</p> <p>Oinarrizko errenta eta gizarte-larrialdietako laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzak-unitateak igo egin dira. Egungo krisi ekonomikoaren ondorioz langabezian edota diru-sarrerarik gabe dauden pertsonadun familia-kopurua da horrelako laguntzak areagotzearen arduradun nagusia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ GLLak osatzeko partida ekonomikoa areagotzea.
	Gizarte-zerbitzu eta - ekipamenduak		<p>Arratian, Mankomunitateak Gizarte Ekintzako Arlo bat dauka, udalerrri bakoitzean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Unitateak eskaintzen dituena udal guztietan. Arloaren funtzioa udalerrri bakoitzak egon daitezkeen zailtasun-egoera desberdinak jorratzeko eta gizarte-zerbitzu eta -baliabideak eskuratu ahal izateko informazio, aholkularitza eta balorazio banakako eta familiarra ematea da.</p> <p>Mendeko pertsonentzako Egoitza Diman dago. 60 plaza daude egoitzan eta 20 eguneko zentroan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ordenantza berrikustea. ♦ Adinekoentzako etxebizitza zaintzapekoen proiektu pilotua, gizarte-ortuak eta abar garatzea. ♦ Gazteriarentzako sexu-hezkuntza, prebentzioa eta ohitura osasuntsuak sustatzea. ♦ Lankidetzak-hitzarmena Gurutze Gorriarekin.

	Azpi-eremua	Balorazioa	Diagnostikoaren gakoak	Lehentasunezko jarduera-eremuak
BERDINTASUNA	BERDINTASUNA			
	Berdintasun-politikak		<p>Arratiako Udalen Mankomunitateko Berdintasun Arloak 2012an eman zio hasiera bere jarduera garatzeari eta harrera ona izan du udalerrri desberdinetan eta eskualde mailako jardueretan.</p> <p>Arratiako Udalen Mankomunitateko lehen Berdintasun Plana egin da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Mankomunitateko Genero Berdintasuneko Plana garatzea. ♦ Udaletako berdintasun-planen garapenean laguntzea. ♦ Berdintasunaren eremuan baterako jarduerak koordinatzea.